FAMILIAN ESPERIMENTATU



Noiz sentitu zinan azkenengoz
ume edota libre zerbait egiteko?



Dastatu eizu gure "Ametsak egia bihurtu"
Menua eta familian esperimentatu.

LEHEN PLATERERAKO HAUXE PROPOSATZEN DOGU...

Pentsatu....

- Zoriontsu egiten zaituen gauza bitan.
- Triste jartzen zaituen gauza bitan.
- Beldur apur bat emoten deutsuen gauza bitan.
- Eta amaitzeko, lasai sentiarazten zaituen gauza bitan.

Orain, ondoen sentiarazten zaituen hori marraztu.
Familiagaz egiteko eta gozatzeko aste honetako egun bat hartu.

...itzuli nahi neuke.

ZURE EMOZIOAK BIZI ETA ESPERIMENTATU.

Emozioek zelan sentitzen garan ulertzeko balio dabe. Batzuetan, pozik, beste batzuetan triste, noizean behin beldurrez, eta beste askotan, segurtasunez eta lasai...

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

ORAIN, EGUNEKO PROPOSAMEN EDOTA IRADOKIZUNA...

...pentsatzeko une eta lekua bilatu.
Zer da zuretzat eta familiarentzat garrantzitsua?....

Konpromisoa, zuzentasuna, askatasuna, gizalegea, familia bera...
bezalako jarrera zein egoerak. Orain, gogoratu zeure amets, gogo eta oroitzapenak: honeetatik zoriontsu egiten zaituenak aukeratu eta nahi badozu idatzi eizuz hementxe bertan:

Ederto, lortu dozuz, ba!
Horreexek dira baloreak. Zure bizitzan eta maite dozuzanen bizitzan garrantzitsuak izango dira.

Balore horreek, zure eguneroko bizitzan badabe lekurik?

Zure bizitzan holango balore gehiago izateko, zer egingo zeunke? Ondo pentsatu, behar dozun denbora hartu. Familia be sartu.

...gehiago izan nahiko neuke.

ZURE BALOREAK BIZI ETA ESPERIMENTATU.

Baloreek, bai zelan portatzen garan edota jokatzen dogun, bai egiten doguna zergaitik egiten dogun ulertzeko balio dabe.
Guretzat benetan garrantzitsuak diran eta batera zein bestera eroango gaituen osagaiak dira.
Orokorrean, egiten dogun guztiak izaten dau zentzua edota helburua.
Gure baloreakaz bat bagatoz, koherentzia eta segurtasun handiagoa izango dogu. Konpromisoak, gure bizitzari erabateko zentzua emongo deutso eta.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

BEREZI-BEREZIA DAN HIRUGARREN PLATERA. AURRERA EGITEKO PREST?

Umeak bezala salto zein dantza eginarazten deutsuen abestia bilatu. Beste toki zein garai batzuetara eroaten zaituen eta kotxean joatean, altu baino altuago jartzen dozun hori.

- Gorputzari mugitu eta adierazten... itzi.
- Burua askatu, une batez betebeharrak ahaztu.
- Luzatu, zabaldu, jostatu. Egongelan, gelan, hondartzan...lekua egin.
- 3, 2, 1... Play sakatu!

Orain beste abesti edota soinu bat aukeratu.
Oraingoan, pintzela, margoak, errotuladoreak eta irudia egiteko "zeozer" hartuko dozue, bertan margoztuko baitozue.

- Zoriontsu egiten zaituen gauza bitan.
- Triste jartzen zaituen gauza bitan.
- Beldur apur bat emoten deutsuen gauza bitan.
- Eta amaitzeko, lasai sentiarazten zaituen gauza bitan.

...ondo sentitzen naz.

ADIERAZPEN MODUAK %100EAN BIZI ETA ESPERIMENTATU

Adierazpen modu desbardinak esperimentatzeak, jendeagaz, inguruagaz eta munduagaz hartu-emonak izateko modua aberastuko dau.
Batzuetan, zer esan asko dogula konturatzen gara. Ondoen zelan adierazi daikegun jakiten dogunean, besteak beste, arte, dantza, musika, gorputzaren... bidez, ederto baten sentitzen gara.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

GOZO-GOZO BENETAKO OINARRIEKIN

Jarraian, sormen handia eskatzen dauan burua astindu eta zabaltzeko jokoa dozu. Familian jolastu eta ideiak proposatu.

ZER GALDETUKO ZEUNSKIO EGUZKIARI?

Ia, ba! Mugak jarri beharrean, galdetu, galdetu...

Zelan heldu gara ideia honeetara?

ZURE PENTSAMENDUA BIZI ETA ESPERIMENTATU



Bizitzan aurrera egiteko, ikastea eta pentsatzen ikastea, oinarrizko ezaugarriak dira. Inguruak, erronkak etengabe jartzen deuskuzanez, gu geu zein lan munduan garatzeko, erronkei aurre egitea ezinbestekoa izango da.

Informazioa bilatzea, sailkatzea, aztertzea, aukera desbardinak antzematea, ideiak lotzea, aurreko esperientzietatik ikastea, lanean hastea... Horreek guztiak dira gure pentsamendua lantzean geureganatuko doguzan trebetasunetariko batzuk.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

BAZENKIAN ERLEAK...DANTZA EGINEZ KOMUNIKATZEN DIRALA?

Jarri martxan barruan dozun detektibea: ideia hori zalantzan jarri, zabaldu eta berresteko ezagunei galdetu edota internet zein liburuetan begiratu eta ikertu.

Aurrera egiteko lagungarriak

- **Zalantzan jarri:** Galdera arina: Egia dala uste dozu? Zergaitik bai eta zergaitik ez?

- **Lagungarriak bilatu:** Liburu, haur-entziklopedia edota web-orrialde fidagarrietan ebidentziak bildu edo ezagunen bati (auzoko, maisu, erlezain..) galdetu. Idatziz jaso guztia, baita informazio iturriak be.

- **Egiaztatu eta erabaki:** informazio iturriak bat datoz? Bata bestea baino fidagarriagoa da? Beraz, egia/ ez bata ez bestea/ gezurra...da? Jakingo zeunke zergaitik dan holan arrazoitzen?

Partekatu familian!

Azaltzeko, irudiz hornitu, miniklipa grabatu edota dantza bat egin daikezu.

YUJUUU!

ITXIERA GALDETZEAREN LILURA

Arakatzea,oso txinparta sinpletik sortuko da, hau da, galdetzera ausartzetik. "zergaitik?", "zelan?" edo "zer gertatuko litzateke...ba...?" galdera bakoitzak aurkikuntzarako bideak irekiko dauz ikastea amaierarik gabeko abentura dala be gogoraraziko deuskularik.
Gure seme-alabei, jakin-mina asetzen laguntzen badeutsegu, arakatzeko konfiantza, euren kabuz pentsatzeko ausardia eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko poza oparituko deutsegu.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

ORAIN, EGUNEKO PROPOSAMEN EDOTA IRADOKIZUNA...

- Gogokoen dodazan gauzen kutxatxoa.

  Etxeko txikiaren bizitzan garrantzitsuak diran objetuak, adibidez, pelutxea, mantatxoa, txupetea, galletaren bat... gordetako kutxa bilatu.
  Kutxan sartu bitartean, biok batera, zer diran eta ahoz zer esanahi edo adierazten daben aztertu: "Pelutxe honek...izena dau, ondo sentiarazten nauanez, beragaz egiten dot lo,...-(e)k oparitu eustan".

- Orain, seme edo alabagaz pentsatu, NUK bezalako baten kutxa zelangoa izan daiteken.
  NUKentzat zein gauza uste dozu izango dala garrantzitsua? Galletak gustatuko ete jakoz? Pelutxeagaz egingo ete dau lo? Siestea egiteko mantatxoa beharko dau?

BESTEAKAZ BIZI ETA GIZARTEKOTZEKO DOZUN MODUA BIZI ETA ESPERIMENTATU

Gizartean bizi eta pertsona moduan hazteko, ezinbestekoa da taldean alkarregaz biziten ikastea. Enpatia garatzea, behar-beharrezkoa da besteak nahiz euren egoera/jarrera ulertzeko. Ume guztiek aukera bardinak izango dabezan gizartea sortu eta osatu gura badogu, dibertsitatea/aniztasuna ikuspuntu zabal eta enpatikoz hartu beharko dogu.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

OROITZAPENEZ GOZATZEKO ORDUA

Iradokitzen daben istorioak.

Eskola garaiko oroitzapenak, istorioak...itzelak izaten dira, ahaztezinak, benetan. Maitasunez gogoratzen doguzan lagunak, irakatsi baino gehiago egiten eben irakasleak...Une dibertigarriak, gainditutako erronkak, lagun zein senideakaz egoten garanean beti kontatzen doguzan abentura eta gertaerak.

Orain, gogoraturiko eskola garaiko oroitzapenen artean garrantzitsuenetariko bat aukeratu eta familiari kontatu.

Zein istorio eder dozu kontatzeko?

IRADOKITZEN DABEN ISTORIOAK KONTATZEAK ZER ERAGITEN DAUAN BIZI ETA ESPERIMENTATU



Gizartean bizi eta pertsona moduan hazteko, ezinbestekoa da taldean alkarregaz biziten ikastea. Enpatia garatzea, behar-beharrezkoa da besteak nahiz euren egoera/jarrera ulertzeko. Ume guztiek aukera bardinak izango dabezan gizartea sortu eta osatu gura badogu, dibertsitatea/aniztasuna ikuspuntu zabal eta enpatikoz hartu beharko dogu.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!

AMAITZEKO, POSTREA

Orain dala gitxi amaitu dozu Kutxatxoaren jokoagaz.

NUKek be, zure moduan, galletak, txokolatea edota postreak gogoko dauazala pentsatu dozu.

Postreez hitz egiten gagozala, berezia dan eta NUKen gogokoa izan daiteken postrea egiten ausartuko zara?

- Lehenengo eta behin, interesgarria dan postrea aukeratu
- Orain, zein osagai behar dan pentsatu eta aukeratu
- Erosi beharreko osagaien zerrenda egin eta zeureganatu
- Platera prestatzeko prozesuaren barri jaso edota ikasi
- Ekin lanari, ba!

Familian dastatu eta gozatu!

Gogokoa izango dalakoan gagoz.

IRADOKITZEN DABEN ISTORIOAK KONTATZEAK ZER ERAGITEN DAUAN BIZI ETA ESPERIMENTATU

Ezinbestekoa da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sormenezko erabilera arduratsu eta kritikoa egitea, ikasketa seguru, global eta osoa egin eta sustatzeko.
Honek, astialdiaren kudeaketan, jakituriaren eta teknologiaren erabilera arduratsu eta eraginkorraren bidez, eragin handia izango dau gizartearen inklusio eta parte hartzean.

Lortuko dozuzan zigiluak markatu daikezuz. Aurrera!